



# **BIZTANLERIA**

**LEHEN HEZKUNTZA  
6.MAILA**

**Carmen Marcos eta Carmen Pueyo**

---

### **Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barne: Hizkuntza, Ingurunea, Matematika**

**Gaia: Biztanleria**

**Maila: 6. maila**

**Saio kopurua: 6**

### **Proposamenaren testuingurua**

Gaurko gizartean idatzizko testuak gero eta gutxiago erabiltzen badira ere, gure ikasleek oraindik erabili egin beharko dituzte bizitzan, eta, horregatik, guk erremintak eman behar dizkiegu horrelako testuak menperatzeko, haien premia dutenean zuzen eta egoki erabili ditzaten. Hori dela eta, eskaera-gutuna idazten ikasiko dute unitate honetan. Gure herriak izan duen biztanleria-hazkundera aitzakia moduan hartuta, Udalarari gutun bat idatziko diote ikasleek, biztanleriaren aldaketak direla-eta herrian sortu diren behar berriengatik eskaerak egiteko.

### **Gaitasun hauek landuko dira:**

- Ikasten ikasteko gaitasuna
- Matematikarako gaitasuna
- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

### **Helburu didaktikoak:**

- Biztanleriari buruzko datuak erabiltzea hainbat ondorio ateratzeko: biztanleriaren aldaketak, biztanleriaren beharrak...
- Biztanleriak dituen beharrak aztertzea: osasuna, etxebizitza, ikastetxea, parkeak... Hainbat modutan aurkeztutako informaziotik abiatuz, idatzizko dokumentuak osatzea (grafikoak, taulak, testuak...).
- Gutun formalen egitura ezagutzea.
- Gutun baten gorputzaren edukia paragrafotan egituratzea.
- Gutun formalak idaztea.

**Edukiak:**

- Gutun formalaren formatua eta dagokion idatzizko hizkera
- Paragrafoa
- Biztanleriaren kontzeptua (sexu eta adinaren arabera)
- Biztanleria aztertzeko erremintak: grafikoak, taulak, piramideak
- Herriko biztanleriaren ezaugarri nagusiak
- Informazioaren trataera
- Ortografia eta zuzentasuna

**Jardueren sekuentzia:**

1. Proiektua aurkeztu eta gaira hurbiltzea.
2. Biztanleriarekin lotura daukaten hainbat kontzeptu landu.
3. Biztanleriaren piramidea egin, eta ondorioak atera.
4. Lortutako informazioarekin aurreikuspenak egin.
5. Gutun formalaren atalak aztertu.
6. Gutun formala idatzi.

**Ebaluazio irizpideak eta adierazleak:**

1. Ea gai den biztanleriaren grafikoek eta datek ematen duten informazioa bere hitzekin adierazteko, laguntzarik gabe. (2.3.jarduera)
2. Ea gai den, biztanleriaren datuak interpretatuz, ondorio praktikoak ateratzeko. (4.jarduera)
3. Ea gai den gutunaren gorputza esanahi osoko paragrafoetan banatzeko. (6.jarduera)
4. Ea gai den testu formaletan egokiak diren trataera moldeak erabiltzeko, hartzailearen eta igorlearen arteko distantzia kontuan hartuta. (6.jarduera)
5. Ea gai den eskaera gutun bat idazteko, haren egitura formala errespetatuz eta haren osagai estruktural guztiak erabiliz. (6.jarduera)
6. Ea erakusten duen informazioa txukun jasotzeko eta ongi antolatzeke interesa eta gogoia. (3.,4. eta 6. jardueretan)

## JARDUEREN GARAPENA

### 1. JARDUERA

Zuek bizi zareten herrian, azken urteotan etxebizitzaren hazkundera nabaria izan da.

Binaka jarrita, pentsatu, eta erantzun galdera hauei:

- Zer adinetako jendea etorri da zuen herrira?
- Uste duzue herria prestatuta dagoela hainbat jende ondo bizi dadin?
- Zeintzuk dira herrian sortu diren behar berriak?
- Nori jakinaraziko dizkiozue ikusten dituzuen beharrak?

Aurreko galderei erantzuteko, pausu batzuk emango ditugu. Alde batetik, teoria apurtxo bat ikusiko dugu, oinarrizko kontzeptuak ulertzeko, eta, bestetik, praktikan jarriko dugu ikasitakoa. Proiektu honen azken helburua Udalari gutuna idaztea da. Herriaren beharrak zeintzuk diren aztertuta, udalari horien berri eman, eta eskaera egingo diogu gutun horretan.

## 2. JARDUERA.

### Irakurri eta ikasi :

Lurralde finko batean bizi diren gizon-emakumeen multzoa **biztanleria** deitzen da.

Datuak biltzeko, erroldak eta zentsuak egiten dira.


Zeintzuk dira bion arteko ezberdintasunak? Aztertu ditzagun:

- **Erroldak:** Bost urtean behin egiten da, eta herri edo hiri batean bizi diren biztanleen zerrenda da.
- **Zentsua:** Hamar urtean behin egiten da (hurrengoa, 2011n), eta probintzia, autonomia-erkidego edo lurralde batean bizi diren biztanleen zerrenda da. Hainbat datu biltzen dira: adina, sexua, ikasketak, egoera zibila, etxebizitzaren ezaugarriak, jabetasuna...

Bai erroldetan, bai zentsuetan, oinarrizko bi modutan egituratzen da biztanleria:

1. Sexuaren arabera: gizonezkoak edo emakumezkoak
2. Adinaren arabera:
  - Biztanle gazteak: 15 urtetik beherakoak dira.
  - Biztanle helduak: 15 – 64 urte bitartekoak dira
  - Adineko biztanleak: 65 urtetik gorakoak dira.

Datu guztiak erraz ikusteko eta ulergarriak izateko, figura baten bidez irudikatzen dira datuak. Forma horri **biztanleria-piramidea** deitzen zaio. Hona hemen eredu bat.



Galderen bidez ezagutuko dituzue biztanleria-piramidearen ezaugarriak:

1. Gizonezkoak eta emakumezkoak nahasturik agertzen dira? Azaldu nola agertzen diren.
2. Teoria ikusita, margotu aurreko biztanleria –piramidea irizpide honekin: biztanle gazteak, urdinez; biztanle helduak, berdez; eta adineko biztanleak, gorriz.
3. Zer adierazten dute, zure ustez, piramidearen beheko marretan agertzen diren zenbakiak?
4. Bai susto ederra! Beheko marretan dagoena biztanleriaren kopurua da, kasu honetan milakoetan adierazita; adibidez, 25-29 urte bitarteko gizonezkoetan, 4,3 agertzen da. Horrek esan nahi du

$$4,3 \times 1000 = 4300 \text{ gizonezkoak direla.}$$

Hori ikusita, kalkulatu zenbat biztanle gazte dauden.

### 3. JARDUERA

ADINA	0-4	5-9	10-14	15-19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	60-64	65-<
GIZONEZKOAK	227	212	206	121	250	298	322	351	405	454	375	283	190	427
EMAKUMEZKOAK	210	201	185	105	321	313	330	344	350	405	373	266	213	518

1. Hemen dituzuen datuekin, biztanleria-piramidea osatuko duzue; horretarako, beheko grafikoa erabiliko duzue.

## GIZONEZKOAK

## EMAKUMEZKOAK

	65-<	
	60-64	
	55-59	
	50-54	
	45-49	
	40-44	
	35-39	
	30-34	
	25-29	
	20-24	
	15-19	
	10-14	
	5-9	
	0-4	
500 400 300 200 100		500 100 200 300 400

## BIZTANLERIA AZTERTZEN

Horra herri honetako biztanleriaren banaketa. Informazio horrekin, herriaren beharrak aztertuko dituzue:

- Zenbat ume daude 0-9 urte bitartean?
- Zer zerbitzu (parkeak, eskolak, pediatrik...) behar dituzte ume horiek?
- Eta agureek (65-<)?
- Hemendik 25 urtera, gehitu egin beharko dira zaharrentzako zerbitzuak? Azaldu zergatik.
- Zuek, nerabeen taldean egonda (10-19 urte bitartean), zer beharko zenukete?



- Orain, pentsatu zuen gurasoez (30-50 urteen bitartean daudenak). Badute behar berezirik? Zeintzuk?

- Gazteek, 20-30 urte bitartekoek, gustuko dute kirola. Zuen ustez, nahikoa da herriko kirol-ekipamendua? Eta 10 urte barru?

#### 4.JARDUERA

Orain, taula honetan, herri batean egon ohi diren zerbitzuak ikusiko dituzue. Gehiago bururatzen bazaizue, idatzi taulan.

Zerbitzuak	
Hurtzaindegiak	
Eskolak	
Institutuak	
Anbulatorioa	
Farmaziak	
Posta	
Zaharren egoitzak	
Janari dendak	
Jatetxeak	
Kiroldegia	
Ludoteka	
Liburutegia	
Parkeak	
Zinea/Antzokia	

Markatu aurreko taulan (X jarri) zein zerbitzu jotzen dituzuen beharrezkotzat gaur egun. Kontuan hartu herriak badituenak, baita adinaren arabera biztanle-taldeak ere.

Aurreko taula kontuan hartuta, aztertu zeintzuk izango liratekeen biztanleriaren beharrak adinari begira . Errazago egingo duzue, taula hau betez gero.

Adin tarteak	Beharrak
0-9	

10-19	
20-30	
30-50	
50-65	
65-<	

Oharrak

.....

.....

.....

.....

Segur aski, gauza asko bururatu zaizkizue. Eta orain, zer egin? Zer pauso eman behar ditugu ? Norengana jo?

## 5.JARDUERA

Hona hemen gutun formala egiteko argibideak. Arretaz irakurri. Ondoren, Udalarri gutun formal bat idazten hasiko gara, eskariak egiteko.

### OINARRIZKO ARGIBIDEAK

**Gutunaren egitura:** gutun gehienek egitura berdintsua izaten dute.

**Gutunaren atalak:** eskeman ikusiko dugun bezala, gutunak hiru atal nagusi dauzka (burua, gorputza eta oina). Atal bakoitzaren ezaugarriak zein diren ikusteko eta egoki idazteko hainbat aholku dituzu ondoren. Eskema honetan ikus daiteke non kokatzen diren:

#### 1.- BURUA

- 1.1 Orri-burua
- 1.2 Hartzailera
- 1.3 Gaia
- 1.5 Hasierako agurra

#### 2- GORPUTZA

- 2.1 Sarrera
- 2.2 Testua

#### 3.- OINA

- 3.1 Amaierako agurra
- 3.2 Sinadura
- 3.3 Toki-egunak
- 3.3 Oharrak

#### 1. BURUA

1.1 Igorlea: orri-buruan, goi-goian eta ezker aldean jartzen da. Bertan, igorlearen ezaugarriak azaltzen dira. Honakoak ager litezke:

- Igorlearen izena eta logotipoa (baldin badauka)
- Igorlearen jardura
- Helbidea (kalea, zenbakia, etab.)

- Posta-kodea (zenbakiz), herriaren izena (letra larriz) eta herrialdearen izena (letra xehez, parentesi artean)
- Telefono zenbakia
- Fax zenbakia
- Helbide elektronikoa

Adibidean, ezaugarri horietako batzuk jasotzen dira:

## ARIN

GELTOKI KALEA 4, 2.esk.  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
TEL. 943 000 000  
arin@elkartea.com

*Oharra:* batzuetan, igorlearen datuak oinean ematen dira, sinaduraren azpian.

### 1.2 Hartzailea

Hartzailearen datuak goialdeko eskuinaldean jasotzen dira, orri-burua baino beheratxoago. Bertan adierazten dira: enpresa, erakunde edo entitatearen izena, eta, dagokion kasuan, hartzailearen izen-abizenak, kargua eta helbidea. Hartzailearen izenaren ondoan ez da beharrezkoa jaun edo andrea idaztea.

Ikusi ondoko adibidea:

Koldo Azpiazu

Arrantzale Kalea, 4

48002 Bilbo (Bizkaia)

### 1.3. Gaia

Gaia hartzailearen ondoren idatziko dugu, orriaren ezker aldean. Gutunaren mamia azalduko da bertan, labur-labur. Bizpahiru hitzez adieraziko dugu zein den gaia, adibidez, e-postaz bidaltzean *Gaia*-n (*asunto*) egiten dugun moduan.

### 1.4. Toki-egunak

Orriaren behealdean ageriko da, oro har, eskuinaldean, hartzailearen azpialdean: lehenengo, herriaren izena idatziko da; ondoren, koma batez bereiztuta, data idatziko da. Hona hemen zenbait adibide:

Gernika, 2001eko maiatzaren 11  
 Gernika, 2001eko maiatzaren 12a

Gernikan, 2001eko maiatzaren 11n  
 Gernikan, 2001eko maiatzaren 12an

Gernika(n), 2001eko maiatzak 11  
 Gernika(n), 2001eko maiatzak 12

### 1.5. Hasierako agurra

Agurraren bitartez, hasiera ematen diogu gutunari, eta, honenbestez, jasoko duenarekiko harremanari. Horregatik, agurra aukeratzekoan, kontuan hartu behar dugu gutuna nori zuzentzen zaion eta nolako tratamendua eman nahi diogun.

HURBILA	NEUTROA	FORMALA
Adiskide:	Jauna:	Jaun agurgarria:
Adiskidea:	Jaun hori:	Andre agurgarria:
Adiskide hori:	Jaunak:	Jaun-andre agurgarriak:
Adiskide horiek:	Andrea:	Bazkide agurgarria:
Laguna:	Andre hori:	
Lagun hori:		

## 2. GORPUTZA

### 2.1. Sarrera

Sarreran, besteak beste, gutunaren gaia aipatuko dugu esaldi labur baten bidez. Gaia aurkezten lagunduko diguten hainbat esamolde erabil daitezke atal horretan. Hona batzuk:

<i>A causa de...</i>	...dela medio... / ...dela bide...
<i>A consecuencia de...</i>	-(r)en ondorioz
<i>A petición de...</i>	-(r)en eskariz, -(e)k eskatuta
<i>Acabo de recibir...</i>	Jaso berri dut...
<i>Agradeceríamos que...</i>	Eskertuko genuke...
<i>Con motivo de...</i>	...dela eta...
<i>De acuerdo con...</i>	-(r)en arabera -(r)ekin bat etorriz -(r)ekin bat etorriz
<i>He recibido...</i>	... jaso dut...
<i>Me complace...</i>	Atseginez...
<i>Me es grato...</i>	Atsegin dut...-(e)la
<i>Para su conocimiento</i>	Jakin dezazun... -(r)en berri izan dezazun
<i>Ponemos en su conocimiento</i>	Jakinaraziko dizugu... Zu jakinaren gainean jarriko zaitugu...
<i>Por medio de...</i>	Honen bidez...
<i>Por razones que Ud. sabrá comprender...</i>	Ulertuko dituzun arrazoiak direla eta...
<i>Rogamos que...</i>	Mesedez... Eskatu nahi
<i>No habiendo recibido contestación...</i>	...erantzunik jaso ez dugunez gero...
<i>Tenemos a su disposición...</i>	Zuretzat dugu...

### 2.2 Testua

Zati horretan, gaia edo arazoa azaldu eta garatu egiten da. Sarrerako esaldiaren azpialdean izango du hasiera, aparteko lerroaldean.

Oso garrantzitsua da gutunaren edukiaren egitura logika egokian azaltzea, garrantzi handiena edo zehaztasun handiena duenetik hasita xehetasun eta berezitasunak garatzen joateko.

### 3. OINA

#### 3.1 Amaierako agurra

Gutunaren atal horren bidez, amaiera ematen zaio haren edukiari. Bestalde, jasotzaileari agur egiteko da atal hau. Era askotako agurrak daude: eskerrak ematekoak, zoriona edo arrakasta opatzekoak, barkamena eskatzekoak, eskaintza egitekoak... Nolanahi ere, azken agurra ahalik eta laburren eta samurren izango da, eta sarrerako agurrarekin eta gutunaren beraren estiloarekin bat etorri behar du. Jarraian dituzu agur mota batzuk, eredu gisa:

*A la espera de su(s), un, el...*  
*Esperando su(s), un, el...*  
*Agradecer*

*Agradeciendo de antemano*  
*Muy atentamente*  
*(suyos) atentamente*  
*Gracias por su colaboración*  
*Hasta la vista*

*Hasta nuevo aviso*  
*Le(s) saluda(mos)*  
*Atentamente, cordialmente...*

**-(r)en zain**

**Eskerrik asko**  
**Mila esker**  
**Eskertuta**  
**Aldez aurretik eskerrak emanaz,**  
**Begirunez**  
**Begirunez, agur**  
**Mila esker zure laguntzagarit**  
**Laster arte**  
**Ikusi arte**  
**Ondo izan; izan ongi**  
**Besterik esan arte**  
**Agur ; agur t´erdi**  
**Adeitasun osoz, agur/**

#### 3.2 Sinadura

Sinaduraren azpian sinatzailearen izena idazten da, eta, ondoren, horrek duen kargua.

"Izenpetua" hitza jar daiteke izena baino lehen, honako laburdura erabiliz: ***lzpta.***

#### 3.3 Oharrak

Zenbaitetan, gutunari erantsi beharreko informazio gehigarria izaten dugu: eranskina, agiria, faktura... Horrelakoetan, informazio horiek guztiak gutunaren behealdean adieraziko ditugu, "*oharra*" hitzaren ondoren. Batzuetan, latinezko bi laburdura hauek erabiltzen dira:

**PD:** post data

**PS:** post scriptum

## GUTUN BATEN EREDUA

IGORLEA

**ZUMAIAKO ARIN  
PILOTA ELKARTEA**  
Peru kalea, 12  
20750 Zumaia  
tel. 943 860 212

HARTZAILEA

**GIPUZKOAKO  
EUSKAL PILOTA  
FEDERAZIOA**  
Lasuen kalea 65  
47006 Donostia(Gipuzkoa)

Gaia:  
**Arbitroa eskatzea**

## HASIERAKO AGURRA

GORPUTZA

Eskutitz honen bidez, jakinarazi nahi dizugu **ESKUZKO KADETEEN Arin KE vs Hernani** partida urriaren 12an jokatuko dela, goizeko 9:30ean, Zumaiako pilotalekuan. Ondoren, **PALA MOTZEKO Arin KE vs Gazte leku** partida jokatuko da.

Partida hauek behar bezala jokatu ahal izateko, eskatzen dizugu arbitroak bidal ditzazula.

BUKAERAKO  
AGURRA

→ Eskertuta, agur.

## SINADURA

IGORLEA → Eneko Gomez  
Arin KEko IDAZKARIA

DATA → Zumaian, 2003ko urriaren 8an



## 6. JARDUERA

Gutuna idazteko, 3. eta 4. jardueretan landutakoa erabiliko duzue (herriak zer behar duen, eta abar). Gutuna idatzi baino lehen, gomendio orria erabiliko duzue.

### GUTUNA IDAZTEKO GOMENDIO ORRIA:

- Gutunaren hiru atalak idatzi .
- Atal bakoitza era egokian kokatu orrian. Espazioa ondo antolatu.
- Eskutitzean, orri-ertzak zaindu.
- Data laburdurarik gabe idatzi. Tokia eta eguna, koma baten bidez banatu.
- Hilaren izena letra xehez idatzi.
- Agurtzeko formula formalak eta inpersonalak idatzi.
- Gutuna jasoko duen pertsonari, hartzaileari, alegia, zuka idatzi.
- Hasierako agurraren ostean puntu bi jarri.
- Eskutitzaren gorputza paragrafoetan banatu.
- 1. paragrafoan azaldu zergatik idazten duzun.
- Ez ahaztu zukako trataerari eustea.
- Antzeko luzera duten paragrafoak idatzi.
- 2. paragrafoan, hartzaileak erantzutera bultzatzeko arrazoiak eman.
- Ez idatzi azken agurra bat-batean.
- Ez ahaztu sinatzea.

Gutuna ondo idatzi duzuen jakiteko, bete ezazue auto-ebaluazio orria.

Gutuna ebaluatzeko galderak	BAI	EZ
Idatzi dituzue gutunaren hiru atalak (burua ,gorputza eta oina)?		
Era egokian kokatu duzue orrian atal bakoitza?		
Ertz egokiak erabili dituzue eskutitzean?		
Ondo antolatu duzue espazioa?		
Laburdurarik gabe idatzi duzue data? Eta toki-egunak, koma baten bidez banatuta?		
Letra xehez idatzi duzue hilaren izena?		
Hasierako agurra formala eta inpersonala da?		
Zuka idatzi diozue gutuna jasoko duen pertsonari, hartzaileari, alegia?		
Puntu bi jarri dituzue hasierako agurraren ostean?		
Paragrafoetan banatu duzue eskutitzaren gorputza?		
1. paragrafoan, azaldu duzue zergatik idatzi duzuen?		
Zuka aritu zarete gutun osoan?		
2. paragrafoan, bideratu duzue hartzailea erantzutera?		
Luzera berdintsuko paragrafoak idatzi dituzue?		
Behar baino lehenago idatzi duzue azken agurra?		
Sinatu duzue?		